

## SECCIÓN AMENA

# ¡LEKU ONIAN!

¿Aizak *Pipaš*, jakindu  
aldek zer zan atzo  
*Brechan* elkarturikan  
kayeko bi atso?

—Ez; ¿zer zan bada pasa?  
esan nazak, esan,  
¿geyenaz ere ibilli  
zirala an dantzan?

—¡Bai zera! *asistente*  
mutur zikiñ bat an,  
zestotikan bultzaka  
asi atzetikan,  
ta gañera esaten:  
—«*A esta lengua tan perra*  
*se le debía hacer*  
*en todas partes guerra*».

—Aditu zutenian  
andre biyak ori  
*¡zapla!* eltzen ziotek  
mutur zikiñari,  
eta zarpa zar denak  
chikitu artian,  
etziotekan utzi  
beltz arri pakian;  
*bestiak —¡perdón! ¡basta!*—  
esaten zikan an,  
bañan nik etzekiat  
nola etzuten jan;  
noiz bait zilipurdika  
juan uken igasi  
galtzetatik zintzillik  
bakallo ta guzi.

JOSÉ ARTOLA.